



XIII. Musikaria hasiko da bihar Udal Musika Eskolak antolatuta

TOLOSA ▶ Datorren ostiralera arte, kontzertuek, kalejirak eta filmak osatuko dute egitaraua

ASTEBURUA ▶ Bihar 'Umama II' kontzertua izango da; etzi, Poxpolo eta Mokolo eta Musika Banda ▶ 5



Umama II kontzerturako entseguen une bat. HITZA

ORENDAIN ▶

Euskal preso politikoek «bisita duinak» izatea exijitu dute senideek

«Oinarrizko eskubideen bortxaketa» salatu dute Altunaren gurasoek ▶ 6

IBARRA ▶

Uzturpe Ikastolako kadete eta alebin mutilak txapeldun

Laskorain garaitu dute Eskolarteko Gipuzkoako Txapelketetan ▶ 6

ANOETA ▶

Euskal Festa antolatu dute Bentaldearen ondoan, bihar ▶ 7





IRITZIA ▶ OSCAR RENEDO (TOLOSAKO PSE-EE-REN ALKATEGAIA)

Gure lehentasunak Tolosa hobetzeko



Alderdi Sozialista aspaldi hasi zen ohartarazten Tolosak eta Tolosaldeak zituen oinarritzko bi gabeziez: motore industrialaren hutsunea eta lanpostu falta. Horregatik hurrengo legealdirako aurkeztutako gure programan lehentasuna dute hauek.

Datorren legealdirako aurkezten dugun proposamena bost puntutan laburbildu daiteke. Hasteko, administrazioen arteko hitzarmenak aurrera eramaten jarraitzea, herriaren sustapen publikorako. Bigarrenik, aurretik aipatutako puntu hori lortzeko, beste erakunde batzuen (Esaterako, Sprilur, Foru Aldundia, Euskal Gobernu) parte-hartzea bultzatzea, edozein modutan, baita ekonomikoan ere. Bestetik, Tolo-

saldeko Garapen Zentroari, alegia, Tolosaldea Garatzen, eduki gehiago eta aurrekontu handiagoa esleitzea. Honekin batera, beste gizarte eragile, enpresa, sindikatu, lanbide heziketa zentro eta abarrekin batera formakuntza eta lan mundurako barneratzeko planak areagotzea. Azkenik, zoru industrialaren eskaintza handituz, enpresa berriak bilatu eta erakartzea Tolosaldera. Horretarako, horren garrantzitsua den gure kokapen geografikoa, komunikazio sarea eta estatuarekiko nahiz Europarekiko ditugun loturak saltzen jakin behar dugu.

Lanpostuak sortuz, gure gazteak lan bila eskuldetik atera izan beharra ekidindugu. Hau, etxebizitza duin eta eskuragarri bat eskuratzearekin lotzen badugu, ekidindugu, 2.500 pertsonak, hauetatik, gehiengo, gazteak, Tolosatik alde egitea. Etxebizitza inguruan helburu garbiak ditugu: babes ofizialeko etxebizitza gehiago, babes ofizialeko alokairuko etxebizitza

gehiago eta udal babeseko etxebizitza gehiago. Udal gobernu ezezagunak diren mailaraino bultzatu dugu, babeseko etxebizitzak egiteko Voith-Gorostidiko eremuetan. Eta orain, Tolosako plan orokorrean Udal gobernuak proposatzen zutena baino %3 gehiago egiteko negoziatu dugu. Hau da, %27 beharrean, %30 izatea babes ofizialekoak, eta beste %40a, udal babesekoa. Kopuru hauekin, azkenik, lortuko dugu, Laskorain Goikoan 700 etxebizitza eskuragarri egitea.

Amaitzeko, gure beste erronka garrantzitsuenetakoa da, gazteria. Abastos-en alde apustu egiten dugu, gazteei zuzendutako hornikuntza falta arintzeko. Bestalde, lan egingo dugu, Usabal kiroldegia amaitzeko falta den hirugarren fase horretan kirolaren, aisiaren eta gazteen aldeko zerbaitek egiteko. Ganorazko egitasmoak ditugu: ezagun egiten al zaizue, Tolosarentzako olatua? Eta honi, gazteentzako dantzaleku bat gehitzen badiogu?

IRURA ▶

Gutun hutsa sartzeko eskatu dute beste behin

Siglak alde batera utziz, herritarren zerranda babesteko eskatu dute EAEkoek

E. EZEIZA

Irurakoek hauteskunderi begira bizi duten egoera berezia dela eta, bilera egin zuten herenegun, herritarrei zenbait azalpen emateko. Bertan, alkatetzarako aurkeztu den herritarrez osatutako zerranda bakarrak boto zuria eskatzearekin batera, hau zer den garbi azaldu zien herritarrei. Boto zuria ematea, sobre hutsa, hau da, barruan ezer ez duena hauteskontzian sartzea da. Izan ere, Marimi Ugalde, EAE-ANVko alkategaia garbi utzi nahi du, «abstentzioak ez du ezertarako balio, komeni dena da jendea bozkatzera joatea eta sobre hutsa sartzea».

Egungo alkatearen esanetan, EAE-ANVren ordezkari bezala aurkeztu bada ere oraingo honetan, «egungo

egoera berezia dela eta, siglak alde batera utzita, herritarrekin bat eginez, herri ekimen gisa aurkeztu gara». Ugalde azaldukoaren arabera, alderdi ezberdinetako herritarrekin hitz egin eta gero, herri ekimen gisa aurkezteko erabaki zuten. Honen adierazte, Irurako zenbait talde eragilek babesa eman zioten taldeari.

Bestalde, herritarren artean, norbanakoen sinadurak biltzen ari dira herritarrez osatutako hautagaitza bakarri babesa emateko. Honekin erakutsi nahi dutena da, «PSOE-EE edo PPkoek, 30 boto inguru lortzearekin ezin direla Irurako herria gobernatzea etorri». Izan ere, hauetako alderdiren batek botoen %5a baino gehiago lortuko balu Udal gobernu guztia eskuratu luke.

ANOETA ▶

Zaharren biltokia «herrira irekitzea eskatzen dute»

EAEkoak Alkartasun izan ziren herenegun



EAE-ANVko hautagaiak Alkartasuna biltokian adinekoekin. E. EZEIZA

E. EZEIZA

Hauteskunde kanpainaren baitan, Eusko Abertzale Ekin-tzako hautagaiak herriko talde ezberdinekin bilera egiten ari dira. Batzar hauekin, beraien asmoak agertu, eta herritarren beharrak zeintzuk diren entzutea dute helburu. Hala, astelehenean Anoetako gazteetxean izan ziren, gazteekin hitz egin. Herenegun berri, helduen txanda izan zen. Honetarako, Alkartasuna biltokira joan ziren eta batzarra egin zuten, zuzendaritzako kideekin eta han zeuden adineko batzuekin.

Plazaratu zen gai nagusia,

eta bi alderdiek nabarmendu zutena, «biltokia herritarrengana irekitzeko beharra izan zen». Izan ere, Manuel Odriozola, elkarteko zuzendariaren esanetan, «elkarte itxi bat bezala ikusi beharrean, adin guztietako jendearentzako irekia dagoen taberna bat bezala ikustea nahi dugu, eta horretarako garrantzitsua da, gauzak antolatzeko garaian, gu ere kontuan hartzea». Bestalde, Zahar etxearen eta tabernaren funtzionamenduan zenbait zailtasun izan dituzte, arazo ekonomikoak direla eta. Horregatik, zenbait gasturi aurre egiteko laguntza eskatzen diote udalari.

EKITALDIAK ▶

ALTZO

Gaur, 20:30.

Batzarremuño plataformak ekitaldia egingo du Udaletxean. Ondoren zahagi ardoa izango da.

ANOETA

Gaur, 18:00.

EAE-ANVren herri programaren aurkezpen orokorra egingo dute udaletxean.

ASTEASU

Gaur, 20:30.

Kanpainaren azken egunarekin bat eginez, EAE-ANV deituta elkarretaratzera egingo dute plazan.

TOLOSA

Gaur, 20:15.

Ezker abertzaleak deituta kotxe karabana egingo dute. Hau Santa Klaratik aterako da eta Tolosako kaleak zeharkatuko ditu *Pubxerazorik ez, herritarren borondatea errespetatu* lelopean. Datorren igandeko hauteskunde ez demokratikoak salatu nahi dituzte ekimen honekin.

ZIZURKIL

Gaur, 20:00. Zizurkilgo EAE-ANVren zerrandaren aurkezpena egingo dute Joxe Arregi plazan. Ondoren, Adunako sagardotegi batean afari herrikoia antolatu dute. Izena Zentroan eman daiteke gaur eguerdira arte.

DATUA ▶

0

Emakume. Abaltzisketan udal hauteskundeetarako aurkeztu den plataforma independentearen zerrandan ez dago emakumerik. Ezta ere Bidegoiango Eusko Alkartasunakoan, Ikaztegiako Eusko Alderdi Jeltzalearenean, Amezketako Elkar Laneakoan, eta Asteasu Bai Asteasurikoan. Dena den, legearen arabera 5.000 biztanlelik gorakoetan bakarrik da beharrezkoa, hautagaien %40a emakumezkoak izatea eta biztanle kopuru txikiagoa dutenetan ez da beharrezkoa hau aplikatzea. 2011tik aurrera berriz, 3.000 biztanlelik gorakoek bete beharko dute lege hau.

iragarki laburrak ▶

AURKITUAKOAK

Autoko giltza. Leaburutik Belauntzarako bidean, Volkswagen auto baten giltza aurkitu dute. Bi aldiz joan da emakume bat Leaburuko tabernara giltza aurkitu ote duten galdetzeko. 627 369 887.

ALOKAIRUA

Karabana. Errioxako kanpin batean karabana bat alokatzen dugu, guztiz eroso eta hornitua. Interesatuak deitu honako telefono zenbakira: 669 70 68 70.



BI HITZETAN ▶ JOKIN BARRIOLA (LEITZA KULTUR TALDEKO KIDEA)

«Gazteek eremuak behar dituzte eta Udalak errespetatu beharko luke»

N. Urbizu ▶ Leitza Kultur Taldeko kidea da Jokin Barriola (Leitza, 1978).

Zer-nolako balorazioa egiten duzu Leitzako Udalaren azken lau urteotako agintealdiaz?

Gogoratu behar da aurreko udal hauteskundeak egin zireneko eskusiozko egoera. Hemen Larraín herri plataformak botoen gehiengoa lortuta ere ez du izan Udalean erabaki es-

kubiderik. Alde horretatik begirata, Udalaren agintealdian zulo beltz nabarmen bat ikus daiteke, ez baititu bilatu denen artean adostutako erabakiak posibleak egiten litzaketen eskenatokiak, hau da; eskusio hura txartzat hartuz ere ez baitu bilatu formularik alderdi bozkatuenaren iritzia udal erabakietan islatzeko.

Oro har, zer eskatuko zenioke hurrengo Udalari?

Aipatutako eskenatoki horien bila lana egiteko, herri txikietan berebiziko garrantzia baitu erabakiak herritarren sektore zabal eta anitzenean onartuak eta bultzatuak izateak. Azken batean, Udalari herritarren parte-hartzea bultzatzeko eskatuko nioke. Badaude atenezko epe motzean eskatzen duten gaiak. Horrela, etxebizitzaren gaiari seriotasun osoz ekitea eskatuko nioke. Lan fal-

tagatik eta etxebizitza bat ezin eskuratu izanagatik, gazte asko hemen bizitzeko ezintasuna ikusten dute. Udalak aste honetan azaldukoak, zegoena baino kezka handiagoa zabaldu zuten: beraz, hurrengo Udalari dagokio azterketa serio baten ondotik etxea behetik-gora eraikitzen hastea. Baina, hor dago ere lan faltaren arazoa edo Leitza batek behar dituen zerbitzu soziokomunitarioen gabezia: zaharrentzako guneak, Kultur Etxea...

Kulturalki, zer nabarmendu nahiko zenioke Udalari? Udalak herritarren parte-hartzea bultzatu behar du. Leitzak

kirol, kultura eta bestelako ekintzen inguruan lanean dabilen jendearan lana koordinatuko duen teknikaria behar du: hau da, ez dut teknikari honen lana jada funtzionatzen duten talde ezberdinen lanaren ordezkio ikusten, konplementagarri baizik. Honen harira, iruditzen zait azken bi urteetan Atekabeltz herri mailan erreferente bihurtu dela eta erakutsi duela herri honen dinamizazioa garrantzitsuenetako bat izan daitekeela. Gazteek beraien eremuak behar dituzte eta Udalak hori errespetatu beharko luke; gazteria herriko subjeto aktiboenetakoa da.

EGUNEKO IRUDIA ▶

NEREA URBIZU



Triangulon arrosak banatzen

N. Urbizu ▶ Oscar Renedo PSE-EEren zerrendaburua Tolosan eta Miguel Buen Gipuzkoako batzar orokorretarako hauta-

gaia izan ziren atzo eguerdian, herritarren artean arrosak banatzen. Horrekin batera, herri programa ere banatu zuten.

EB-ARALAR ▶

«Positiboa izan da»

EAE-ANVren ahotsa entzuteko modua aztertuko dute datorren astelehenean

N. URBIZU

EB-Aralarrek kanpainaren analisia eginik eta «positiboa» izan dela gehituz, EAEren parte-hartzea eta ahotsa entzuteko modua aztertu nahi dute astelehenean bertan, Torquemada alkategaia esan bezala.

Argi utzi zutena ere izan zen, ez dutela zinegotzigoan parte hartuko «ez bagara ezinbestekoak gehiengo absolutoa lortzeko».

Irazabalbeitiak (Aralar) batzar nagusietarako hautagaiari garrantzia eman zion: «Tolosarrontzat ere inportantea da Gipuzkoako hautagaia, aurrekontuak edo proiektuak handik bultzatzen dira». Txotxongiloen Zentroa gogoratu zuten, eta azpiegiturak ere. Gazteen aldeko apustua bultzatuz, aisialdia eta etxebizitzak bultzatzeko politika egingo dutelako: «Gazteek ere bozka dezatela nahi dugun».

AMEZKETA ▶

Kimu Berriak, eguneroko lanaren iparra, programan

ERREDAKZIOA

Amezketako Kimu Berri taldeak esan bezala, «herritarren arteko tentsioak gutxitze aldera etzizirako indarrak biltzea» da helburua».

Defendatuko dituztenak, euskara, kultura, turismoa bultzatu, adin ezberdinetako gazteen beharrak aztertu eta parte-hartzea sustatu, edota haurtzaindegia erabakia aztertu, besteak beste.

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak moztzeko eskubidea du

EAJren bozka, gatazkaren luzakin!

Norbaitek pentsa dezake hitz hauen atzean nolabaiteko mehatua dagoela: alderantzizkoa bilatzen duen baieztapen gordina besterik ez da.

Alderdi jakin batzuen (EAJ eta PSOE, kasu) hamarkada luzeetako gatazka politikoko armatuaren inguruko interesak besterik islatzen ez duen, frankismo garaiko errepresio bortitzaren jarraipena dela baieztatu behar dugu, moduetan asko ikasia dute eta orain moztortzen saiatzen dira.

Sinesgaitza dirudi, bakoitzaren akatsak ere onartuz, egun, behingoz arazoaren sustraiak helduz irtenbidearen atea horren gertu dagoela baieztatu ondoren, zenbaitzuk, beraien nahi, eta interes ekonomikoengatik, herriaren desirarik biziena baztertera jaurtizko harturiko era-

bakia baieztatzen dela ikustea. Halere, gezurra, manipulazioa... erabiliz herriari iruzurra egiteko.

Gure aldetik garbi daukagu, Euskadi Ta Askatasunako kide garen aldetik, 40 urte gehiago espetxean eduki gaitzaketen belaualdia izan gaitzeko aldeak, dispersio politikoa hiltzailearen hatzaparretan gauden eta erori gaitzeko aldeak, zintzoki ari garela lanean, behingoz herri zapaldu honi zor zaizkion eskubideak onartuak izan eta politika eginez, herriaren hitza ardatz izanik, bake egoera bat zuokin eraikitzeko. Era berean eta gure hitzak ongi ulertzea nahi dugu, ez bazaie gatazkaren korapiloak askatzeko bideak aurkitzen, Euskal Herriak ukatua irauken du.

Gure prestutasuna erabatekoa da konponbidearen alde, baina ez dezaten berriz iruzurra bidea errepikatu, ondorio guztekien aurrean izango baikaituzte-eta. Beraz, hauteskunde

hauek berebiziko garrantzia dute, uste zintzoa daukagu iritsi dela garaia, behingoz abertzaleok bereizten gaituela alde batera utzi eta elkarrekin lanean jar gaitzen Euskal Herriaren alde. Irtsi da indarrak bildu eta guk aukeraturiko ordezkariak herriaren zerbitzura jartzeko garaia. Beraz, jarri diezaigun galga egoera jasangaitz honi.

Jakin behar dugu EAJri bozka ematea (barka diezagute alderdi honetako herritar xume eta zintzoek), gatazkaren aldeko bozka dela, euskaldunok amildegira emango gaituena, beharrezkoa den prozesu demokratikoaren aurkakoa. Animo beraz, guztion esku baitago, bake eta askatasun egarria asetuko dituen udaberriko euri tanttzen bitartez, Euskal orubea lorez eraikitzea. Badator Udaberria! Badator Euskal Herri Berria!

HAIMAR ALTUNA ETA ANDONI OTEGI
▶ EUSKAL PRESO POLITIKOAK

Euren intereserako erabiltzen

Zizurkilen EAJ-EA koalizioa udalera iritsi zenetik, herritarren garrantzia izan da. Agintean jarri eta ur mozketatik hasi eta azken egitasmoetaraino, zizurkildarroi ez digu inongo informaziorik eman Udalak. Ez du proiekturik garatu. Hauteskundeetan, EAJren alkatuek, bere kanpaina egiteko, EAJren Foru Aldundia erabili du. Zenbait gaietan, AHTn, errausketan edota harrobien, informazioa ez eman eta ezkatuta egin du.

Baina, hauteskundeak gainean eta, triptikoak bidaltzea otu zaion EAJri, udalaren kontura. Propaganda kanpaina oraindik egiteko dauden proiektuen inguruan egin du, gainera. Baina, okerrean da zizurkildarroi dirutik egiten ari dela propaganda

kanpaina, guztiona beharko lukeen Udalaren izenean. Kanpainan sartu ostean bidali du azken triptikoa, hau ere Udalaren izenean. Ingurumeneko foru diputatuaren eta Lazkano alkatearen argazkia ageri da, proiektuaz baino, kanpaina politikoa egiten. Ezker abertzalearentzat ez da zilegi zizurkildarroi dirua erabiltzea bere propagandarako.

Honek garbi erakusten du nola erabili duen Udala EAJ-EA: alderdien legea baliatuz eta oposizioa Udaletik at utziz. Garbi dugu Udala herritar guztien eskura egon behar duen tresna dela. Horregatik, EAJri eskatu nahi diogu utzi diezaioa Udala bere intereserako erabiltzeari. Jarrera aldatetaren erakusle ona litzateke etzi zizurkildarrek adierazten duten borondatea onartzea, guztien ordezkariak Udalean lekua eginez.

JUAN MANUEL ERASUN ▶ ZIZURKILGO
EZKER ABERTZALEAREN IZENEAN



GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Aupa Marimi!!!

Gaueko 11ak inguru dira eta heldu zait anaiak bidalitako mezua telefonora. «Irurako EAE-ANV-ko zerrenda hauteskunde hauek kanpo utzi du Espainiako Auzitegi Konstituzionalak». Sartu naiz ohera amorru eta tristuraz bete. Alde batera eta bestera, ezin dut lo hartu, burua bueltaka dabilkit, ezin dut sinistu... nire amak eta beste 11 herritarrek ezingo dute herrian hautatuak izan! Irurako herriari hamabi pertsona hauei bozka emateko eskubidea zapaldu nahi zaiot! PP, PSOE alderdien artean aukeratzera behartuz!

Beste buelta bat ohean, maieatu eta guzti egingo naiz hainbeste bueltekin... zure kontakizunak etortzen zaizkit gogora, ama, gazte denboran, herrian irakasle zinenekoa. Andoainera joatea eskatu zizuten, hango lehenengo Ikastola proiektuan irakasleak behar zituztela eta. Joan zinen, eta ikasleak lurrean eserita eta ezer gabe klaseak ematen hasi zinen (Joseba Egibar izan zen ikasle horietako bat). Guardia Zibila etorri eta kanporatzen zaituztetenekoa ere etortzen zait burura...

Goizeko 02:00ak dira, ezin dut barrua baretu... hiru semeak aurrera ateratzeko aha-

legin izugarria egin ondoren berriro herriaren alde lanari ekin zenion buru-belarri. Beti prest egon zara lanean jartzeko, egiten diren ekitaldi guztietan laguntzeko. Beti herria bazearen alde. Lau urte zinegotzi bezala, auzo elkarteak lehen-dakaria, umeen dantza irakasle, hamabi urte alkatetzan eta azkeneko lauak funtzioan.

Ilegalizatu zuten sortutako herri plataforma (ortzadar), zu, zerrenda-burua zinelarik. Hailere lortu zenituzten bozka kopuruarekin ia bikoiztu zenuten bigarren indarraren bozka kopurua. Hau ikusita beste indarrak ez ziren aurkeztu karguak hartzea eta azken lau urte

hauetan ere gure alkatea izan zara, zuk diozun bezala, herri-tar guztion alkatea.

Hamar egun pasa dira daoneko mezua jaso nuenetik, gauero arazoak ditut lo egiteko, baina herriak erantzun duen modua ikusita itxaropentsuago nago. Iruran beldurra eta askatasun falta nagusi direla argudiatuz, komunikabide batzuk herriko errealitatea kolore ilunez margotzen saiatu diren arren, herri ekimen bat abiatu da, ilegalizazioa salatuz eta herri osoari bozka zuriaren aldeko hautua egitera deituz. Bozka zuria hauteskunde libreen alde, berdintasunaren alde, demokraziaren alde, herriaren hi-

tzarekiko errespetu osoa exijituz.

Herriari eskaini dizkiozu azken 16 urte, maitasunez ziprztindu dituzu herriko txoko guztiak eta hau ikusita herriak maite zaitu, oraintxe ez da ulertzen Irura Marimi gabe eta Marimi Irura gabe, zentzua ematen diozu Irurakoa izateari. Se-meok eta bilobek konpartitu behar izan zaitugu beste 1.300 bat herritarrekin, baina harro-tasun osoz egin, egiten eta egingo dugu. «Asko maite duenak asko sufritzen du» zure gustuko bertso bukaerarekin laburtzen da zure bizitza...

Eutsi ama, aupa Marimi!!!

LUIS ETA JON GURRUTXAGA ▶ IRURA

EA ▶

EAK hizkuntz eskolaren proiektua aurkeztu du



Hizkuntz eskolako proiektua aztertzen, Euskal Herria plazan. N.G.

NAIARA GARZIA

Atzo EAK hizkuntz eskolaren proiektua aurkeztu zuen Tolosako Euskal Herria Plazan. Eguerdiko 14:00etan egin zuten ekitaldian, Onintza Lasa EAren Tolosako alkatetzarako hautagaiak eta EAren beste zenbait kideez gain, Tontxu Campos Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailburua ere han izan zen.

«Guk pentsatzen dugu Euskal Herria plazan kokatu daitekeela hizkuntz eskola ofiziala Tolosa bezalako leku batek merezi duelako eta gainera bat dator eskola izateko profila batekin», azaldu zuen Onintza Lasa EAko Tolosako alkatetzarako hautagaiak. «Tolosa bailarako zentroa da eta ongi komunikatuta dago. Badakigu Donostian ikasle asko itxaron-zerrendan daudela, eta badago ikasle goa eta guk horretarako Tolosa planteatzen dugu. Hemengo ikasle askok beste hizkuntza batzuk ikasi nahi dituzte eta zergatik ez eskaini Tolosan behar duten

zerbitzu hori?», gehitu zuen Lasak.

Tontxu Camposek azaldu zuenez, «hizkuntz eskolak berez dira ofizialak eta ofizialtasuna Jaurlaritzak ematen du. Irakasle goa eta baliabideak jartzen baititu, baina eraiki-nak Udalak jartzen ditu».

Camposek departamendu mailan Gipuzkoako lurraldeari ahalik eta zerbitzurik onena nola eman aztertzen ari direla azaldu zuen. «Gipuzkoan 3 hizkuntz eskola ofizial daude, bata Donostian, bestea Eibarren eta beste bat Iruenen eta gero eta ikasle gehiago daude. Hauetako ahalik eta bere inguruetatik hurbilen eskaini behar zaie zerbitzua». Donostia-ko gaitzeskeria arintzeko ere aukera «egokia» dela azaldu zuen sailburuak. «Aldi berean bailara honetako ikasle goari hizkuntzak ikasteko aukerak emango genizkioke, garraioa nire ustez nahiko ondo konponduta baitago, eta ez lukete inolako zailtasunik izango hona ikastera etortzeko orduan».

EAE-ANV ▶

EAEk «eskualdeko inpugnazioa eta poliziaren jazarpena» salatu du Ibarran

Eskualdeko EAE-ANVren zerrendaburuak aurkeztu zituzten Ibarran

N. GARZIA

Ibarran atzo eskualdeko EAE-ANVren zerrendaburuak aurkeztu zituzten. Aurkezpen ekitaldian, lehenik eta behin eskualdean eman den «inpugnazioa eta poliziaren jazarpena» salatu zuten, «milaka herritar EAJ eta estatuko polizien jomuga izan baitira ikerketa antzu batzuk egite aldera».

Ezker abertzaleak herriz herriko diagnosi eta herri programak osatzen sei hilabete eman dituela azaldu zuten eta bozka eskatu zuten. «EAE-ANVren aldeko bozka biribila eskatzen



Ibarran, eskualdeko zerrendaburuak aurkeztu zituzten. A. IMAZ

dizuegu herriz herri zein bazar nagusietarako, bozka hau baita bozkarik erabilgarriena prozesua tenkatu eta bide one-

an jartzeko. Bozka hau baita bozkarik erabilgarriena herri-tarren parte-hartzearekin herria egiteko».

EAJ ▶

EAJk ekonomiaren garrantzia azpimarratu du Apatza Errekan

N. GARZIA

Atzo arratsaldean EAJren eskualdeko zerrendaburuak elkartu ziren Apatza Industriagunean eta Jokin Bildarratz EAJren Tolosako alkatetzarako hautagaiak honen zergatia azaldu zuen: «guztiok gure programan industria eta ekonomia lehen ardatz garrantzitsu bezala eman dugu eta hurrengo legegaldirako lehen ardatza ekonomiari izaten jarraituko du».



EAJren eskualdeko zerrendaburuak Apatza industriagunean. N.G.

GUTUN@K ▶

Renfe zerbitzuak murrizten

Egunotan sekula beteko ez diren agindu eta hitz emate txapelketa polita ikusteko aukera dugu. Horietako asko mugikortasunari buruzkoak: bide gorriak, inoiz egiten ez diren autobus geltokiak, tren eta topo geltoki berriak, trenbideen lurperatzea.

Pena da agindu horiek guztiak bete gabe geratzen direla ikusita inongo epaitegik alderdi horiek ez epaitzea. Renferekin ez da halakorik gertatzen, ez du ezer agintzen, zerbitzuak murriztu egiten ditu eta ondoren isilik geratzen da.

Gertaera honi buruz ari naiz zehatz-mehatz: irailan Tolosako apeaderoan hurbileko tren zuzena ez geratzea erabaki zuten. Erabaki eta egin. Erreklamazioa egin ondoren honako izan zen Renferen erantzuna: «zerbitzuak hala aginduta hartutako erabakia». Politikariak eta komunikabideak garraio publikoaren onurak aipatzen dituzte, baina zer egiteko prest daude zerbitzu horren arduradunetako batek (Renfe) kontrako neurriak hartzen dituela ikusteak?

Ondorioak honakoak dira: herritarrak haserre, sinadura biltzea (900dik gora), inplikaturiko lau aldean bilera: kalte-tutako herritarrak, Renfe, Aldundia eta Tolosako Udala. Hau guztia zertarako?

Renferen erantzunari ezin mixerableago deritzot: aipatu zerbitzua udan indarrean jarriko duten ikertzeko konpromisua. Hori da hori zekenkeria eta axolagabekeria! Zer uste du Renfek, trena soilik udako bi hilabeteetan hondartzara joateko erabiltzen dugula, ala? Ez dugu erdipurdiko sasi konponbiderik nahi, zerbitzu hau berriro ere indarrean jartzea exijitzen dugu, normaltasun osoz.

Aldundiari eta Tolosako Udalari zera galdetuko nieke, nola uler dezakegu inoiz erabili behar ez dugun abiadura handiko tren bat inposatzen halako ahaleginak egitea eta egunero hainbeste herritarrek erabiltzen dugun tren zerbitzu hau berreskuratzeko horren saiakera epelak egin izana? Nola liteke?

Ez gara ezinezko ezer eskatzen ari. Orain arte indarrean zegoen zerbitzua nahi dugu.

Hurrengo batean, Tolosako apeadero honetako irisgarritasunaren egoera tamalgariariz mintzatuko gara.

JUAN MARI BELDARRAIN
OTAMENDI ▶ TOLOSA

KULTURA ▶

XIII. Musikaria antolatu du Udal Musika Eskolak

Bihar hasiko da eta datorren ostiralera arte iraungo du; kontzertuak, kalejirak eta pelikula izango dira aste osoan

IÑIGO TERRADILLOS

Tolosako Udal Musika Eskolak urteroko bezala, bere aste Musikaria antolatu du, XIII. edizioa, hain zuzen. Bertan, bihar hasi eta datorren ostiralera arte, aste osoan zehar, emanaldi eta kontzertuez gozatzeko aukera izango da. Kontzertu hauek ez zutera gonbidatzen dituzte herriar guztiak Udal Musika Eskolakoei.

Bihar hasiko da egitaraua eguerdiko kalejirekin, eta gauean, *Umama II* kontzertua izango da Leidor aretoan. Kontzertu hau Tolosako Hodeiertz abesbatza, eta Juntxo Zeberio Etxetxipia piano jole eta konposagileak elkarrekin abiatu duten bigarren proiektuaren emaitza da. Hauekin batera izen handiko beste hiru musikari ere parte hartzen dute bertan: Gonzalo Tejada kontrabaxuan, Mikel Andueza saxoetan eta Hasier Oleaga baterian.

Proiektu hau 2003. urtean grabaturiko *Umama II* diskoarekin hasitako lanaren jarraipena da. Aurreko disko hark bai kritika eta bai entzulegoaren aldetik erantzun ezin hobea jaso zuen. «Kritikaren babesa, musikari askoren iritzi baiko-rrak, kora munduko konposatzaile eta zuzendari ugariaren bultzadak, eta gainera benetan proiektu honen emaitza berezi, pertsonal eta emankorren sinistea» izan dira bigarren proiektu hau abian jartzera bultzatu dituzten arrazoi nagusiak.

Beraz, «emanaldia ez da izango orain eskuartean du-



Umama II kontzerturako entseguetako batean. HITZA

gun material berriaren aurkezpen hutsa, baizik eta orain urte batzuk Tolosan bertan hasitako bidearen jarraipen eta sakontze bat bezala ulertu beharrekoa, eta honela, kontzertuan zehar kantu berriak eta aurreko diskoan kaleratutako kantutak tartekatuko ditugu ekimen beraren jarraipen zentzu hori agerian utzi nahi dugularik entzulearen belarrietara, azaltzen dute.

Proiektu hau gauzatzeko aurre prozesua luzea eta lan handikoa izan da: besteak beste, gai guztien aukeraketa egin, konposaketa berriak idatzi, korurako moldaketak egin, testu berrien enkarguak egin, jazz laukotearentzat egokitu abesbatzen partiturak, bai abesbatzarekin eta baita laukotearekin entseguak egin ere...

Eta «kontzertuetan kantupen frogatu, landu, barneratu eta bizi propioa eman ostean», beraien asmoa da datorren uda amaiera eta udazken hasiera artean bigarren disko baten grabaketari ekitea, bertan, «aurkezturiko material hau CD batean guztiontzat eskuragarri jarri ahal izateko».

Etzi saio berezia

Etzi, Tolosako Musika Bandak eta Poxpolo ta Mokolo pailazok Leidorren saioa eskainiko dute. Batzuen musika eta beste pailazokeriak uztartuko diren ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dute haur eta helduek. Emanaldi honetarako sarrerak www.kutxa.net helbidean edota Leidor aretoan eros daitezke 4 eurotan.

EGITARAUA ▶

BIHAR

12:00. Musika Eskolako talde desberdinak (Ikasleen banda, akordeoi taldea, txistulariak, dultzaineroak), kalejiran aterako dira.

12:30. Udalebeko plazan elkartuko dira, denak elkarrekin, kalejirarekin jarraitzeko.

20:30. Leidor aretoan, *Umama II*, Juntxo Zeberioaren laukotea eta Hodeiertz abesbatza.

ETZI

12:00. Leidor aretoan, Poxpolo, Mokolo eta konpainia, eta Tolosako Musika Bandak, musika eta umorea uztartuko dituzte.

MAIATZAK 28, ASTELEHENA

19:00. Musika Eskolako areto nagusian, Carlos Alcalá eta Jesus Mari Garmendiak zuzenduta, Tolosa, Beasain eta Errenteriako perkusio taldeek kontzertua eskainiko dute.

MAIATZAK 29, ASTEARTEA

19:00. Musika Eskolako areto nagusian, Mladi Ensemble Haize Boskotearen kontzertua izango da.

MAIATZAK 30, ASTEAZKENA

19:00. Musika Eskolako areto nagusian, Reflections Iban Galdos eta Patricia Fernandez, Akordeoi Bikotearen emanaldia izango da.

MAIATZAK 31, OSTEAGUNA

12:00. Leidorren, Tolosako zine-forumean, *Together* filma, bi saiotan, 19:15ean eta 21:45ean.

EKAINAK 1, OSTIRALA

Leidor aretoan, Arimaz Tolosako Musika Eskolako Orkestra eta honekin batera, Xabier Zelaia eta Kepa Martinez de Albeniz tronpetarekin eta Ekhiñe Olano tronparekin, kontzertua eskainiko dute.

Ibarra egitea

emanbotoavota
bestemodubatean deotramanera

LUIS IGNACIO ALONSO MORETON
Ibarra Alkatetzarako Hautagaia
Candidato a la Alcaldia de Ibarra

eusko alkartasuna
euzko alkartasuna
euzko alkartasuna

Tolosa egitea

emanbotoavota
bestemodubatean deotramanera

ONINTZA LASA ARTEAGA
Tolosako Alkatetzarako Hautagaia
Candidata a la Alcaldia de Tolosa

eusko alkartasuna
euzko alkartasuna
euzko alkartasuna

ORENDAIN ▶ PRESOK

Euskal preso politiko guztiek «bisita duinak izatea» eskatu dute

Haimar Altunaren gurasoek «oinarrizko eskubideen zapalketa» salatu dute semeari eginiko azken bisitan



Haimar Altunaren aitak, Koldok, semea ikusteko jarrera honetan egin behar izaten ditu 1.000 km. HITZA

ASIER IMAZ

Koldo Altuna eta Iosune Ijurkok, Haimar Altuna preso politikoaren gurasoek, iragan ostiralean, hilak 18, semeari eginiko azken bisitan bizitako «oinarrizko eskubideen zapalketa» salatu dute, eta «euskal preso guztiek bisita duina izatea» eskatu dute.

Haimar Altuna Meaux-eko (Frantzia) espetxean aurkitzen da 2005eko martxoaren 19az geroztik, «etxetik 1.000 kilometrorera». Bere aita, Koldo Altuna, ezindu egoeran aurkitzen da: «nire gaixotasuna medularra da, gerritik behera ez dut mugimendurik». Horren ondorioz, semea ikusteko «bidaia autokarabana batean egin behar izaten dut, etzanda joan ahal izateko. Nire gaixotasunari atxikitzen zaizkion gorabeherak, egun bateko bidaia, bost egunetan egin behar izaten dut, horrek dakartzan ondorioekin; ekonomikoak, fisikoak eta horretaz gain, beste pertsona baten beharra izaten dugu bidaia egin ahal izateko. Nire egoeraren berri, nire semea aurkitzen den kartzelan badute. Medikiak espreski idatzi bat bidali zien, gurgildun aulki batean soilik mugi naitekeela esanaz».

Orain arte egin dituen bisitetan, gurgildun aulkiaekin se-

mea ikusteko arazorik ez du izan preso politikoaren aitak. Azken bisitan, hilaren 18an, ostiralean, gauzak ez ziren horrela izan ordea.

Iragan ostiraleko bisita

«Maiatzak 16ean atera ginen Euskal Herritik Meaux-era. Bidaia luze eta neketsua egin eta gero, hilaren 18an bisitara joan ginen. Goizeko bederatzietan karnetak entregatu genituen. Itxaron gelara sartzea gindoa zela, funtzionario batek eskua erekin ezezkua egin zigun, hau da, ezin nuela gurgildun aulkian sartu. Oinez pasatu behar nuela adierazi zidan, eta ez baintzen hala pasatzen, zigortu egingo gintuztela eta bisita kristala artean zela egingo genuela esan ziguten».

Oinez ibili ezin duela «jakin arren funtzionarioek», bertako preso sozialen senideek detektatgailutik pasa zuten «arrastaka». Bigarren aldiz ere pasa behar izan zuten detektatgailuak zarata atera zuelako. Kasu honetan, «besoetan hartuta» pasa zuten. «Momentu horretan umiliatua eta goitik behera minduta sentitu nintzen, nire gorputzeko oinazeak gehituz».

Funtzionarioek esandakoa egin arren, bisita, kristala medio eginarazi nahi ziela azaldu dute Haimar Altunaren guraso-

ek. Jarrera honen aurrean, beraien eta beste bi euskal preso-eren sendiek, baldintza hauetan bisita egiteari uko egin zioten. «Ohiko bisita egin arte handik ez ginela mugituko esan genien funtzionarioei, baita zuzendariarekin hitz egin nahi genuela». Egoera honetan agertu zitzaizkien funtzionarioen arduraduna, eskuzko detektatgailuarekin. Koldo Altunak «hankak hazita eta dardarka izan arren, raketa hura» pasa zioten.

Preso politikoaren gurasoen esanetan, «ordurako Haimar eta beste bi kideak ohartuak ziren zerbait gertatzen zenaz. Azkenean, bisitara sartu ginen eta gertatutakoa azaltzean, hirurak protesta eginaz ate joka hasi ziren. Gure semearen kasuan, aita nola zuen ikusirik, negar malkoak izan ziren inopentziaren isla».

Bisita amaitu ondoren, «guztiz hunkigarria izan zena», espetxe zuzendari anderearekin, Madame Hanicorekin hitz egin zuten Altunaren gurasoek, «Haimar, Oier eta Urtzik animaturik». Astelehenean aukera zutela erantzun zien, «nahiz eta jakin astelehenera arte ezin genuela itxaron».

Gauzak horrela, hilak 20 igandean heldu zen Euskal Herrira Haimar Altuna preso politikoaren sendia.

IBARRA ▶ KIROLAK

Uzturpeko kadete eta alebin mutilak txapelkun

Eskolarteko Gipuzkoako txapelketak irabazi zituzten Laskorain Ikastolaren aurka



Uzturpe Ikastolako alebin eta kadeteak Villabonan. HITZA

A. IMAZ

Uzturpe Ikastolako alebin eta kadete mutilek, bakoitzak bere mailan, Eskolarteko Gipuzkoako futbito txapelketak irabazi zituzten. Villabonako Olarreaga kiroledegian jokatu ziren finaleko partidak iragan larunbatean, eta Ibarra bi taldeek Tolosako Laskorain Ikastolako alebinak eta kadeteak izan zituzten arerio.

Partiduak 10 minutuko lau denboretan banatu ziren, guztira 40 minutu eta «lege berri baten arabera, jokalariek guztiek parte har dezaten, beharrezkoa da denbora batetik bestera aldatzeko egitea».

Lehenik kadeteek jokatu zuten. Mikel Sanzek entrenatzen duen taldea 2-0 aurreratu zen partidua hasieran. Bi golak Asier Otañok sartu zituen. Ondoren, ordea, Laskorainek markagailua berdintzea lortu zuen, partida amaitzeko 30 segundo falta zirela. Irabazteko ere aukera bikaina izan zuten tolosarrek 10 segundoren faltan, penalti bikoitza izan baitzuten beraien alde. Jaurtiketa kanpora bota ostean, finala penaltietan erabaki zen. Uzturpe Ikastolako guztiak sartu zituen, Laskorainek aitzitik, lehenengo huts egin zuen, ondorioz, 7-6ko emaitzarekin ibartarrek irabazi zuten partidua eta Eskolarteko Gipuzkoako futbito Txapelketa.

Mikel Sanz entrenatzailearen esanetan, «Uzturpe Ikastolako kadeteek meritu handia daukate, izan ere, kontuan eduki behar da taldea osatzen duten bederatzik jokalarietatik bost infantilak direla; honek zera esan nahi du, mutil ho-

riek bere aurkariek baino hiru edo lau urte gutxiago dituztela».

Alebinak ere nagusi

Ondoren alebinen txanda iritsi zen. Ibartarrak denboraldi guztian oso emaitza onak lortu zituzten, partidua erraztasun handiarekin irabaziaz. Horren adibide garbia da Villabonako Fleming eskolari sartutako 28 golak.

Denboraldia multzoko lehen postuan amaitu ondoren, Gipuzkoako eskualdeen artean jokatu zituzten final zortzi-erenak. Garaipenetik garaipenera, finalean sartu ziren Uzturpe Ikastolako alebinak. Hauek ere Laskorain Ikastola izan zuten aurrean azken partidua.

Kadeteen entrenatzailearen esanetan, «alebinak hasieran urduri hasi zuten finala. Horren ondorioz, 0-3 hasi ziren guztien lehen 10 minututan». Hala eta guztiz ere, talde guztiaren lanaz eta Josu (4), Gaizka (2) eta Juan Mariren (2) golei esker, amaieran 8-3ko emaitzarekin Gipuzkoako txapelketa Ibarra eraman zuten.

Ibarra taldeen arduradunek, bertara gerturatu ziren ikusleei eskerrak eman nahi izan dizkie. «Ibarrik 120 pertsona inguru hurbildu ziren autobusez eta kotxez Villabonara. Haeu denei eskerrak eman nahi dizkiegu, eman zituzten babesagatik. Horiez gain, Maider eta Oskiar ere eskerrak eman nahi dizkiegu bereziki. Hauek Ibarra trikitilariak dira eta euren julezkin giro bikaina jarri zuten larunbatean».

PILOTA ▶

HITZA Pilota Txapelketako partidak gaur Berastegin

ERREDAKZIOA

IV. HITZA Pilota Txapelketa jokoan da eta gaur ere partidak jokatuko dituzte. Berastegin jokatuko dituzte norgehiagokak gaurkoan jubehnil mailako pilotariak, 19:00etan hasita. Juanena eta Barberena bikoteak Galarza eta L. de Gebara izango dituzte aurkari. Iraola eta Otegi (Zazpi-Isturri), eta Lizarribar eta Zubiri (Aurrera Saiaz eta Berastegi) ariko dira beste partidari.

Bestalde, aste honetan HITZA Pilota Txapelketan jokatuko diren partidetan ondorengo emaitzak izan dira: senior mailan, Arrastoa-Gutierrez 17, Ongai-Huarte 22; eta kadete mailan, Olaetxea (Zazpi-Isturri) 18, Karrera (Behar Zana) 3; Barandiaran (Aurrera Saiaz) 6, Madariaga 18; Mattin (Aurrera Saiaz) 7, Jaurregi 18; Alustiza 16, Bereziartu 18.

ANOETA ▶

Koadrila egunerako izen emateak Itzuli tabernan

ERREDAKZIOA

Anoetako herri festen baitan, ekainaren 2an, larunbata, Koadrilen eguna egingo dute. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, egun horretako bazkarirako eta afarirako izena emateko zerrendak Itzuli tabernan jarrita daude. Izena emateko epea hilaren 29an amaitzen da, hau da, datoren asteartean.

ZIZURKIL ▶ MAIATZA SALTSAN



Kapoeira erakustaldia egingo dute bihar gauean Joxe Arregi plazan. HITZA

Bertsolaritza eta kulturartekotasuna, azken txanpan

Herriko haur bertsolariek emanaldia egingo dute gaur eta ekitaldiz betetako jaimagunea Joxe Arregi plazan bihar

ERREDAKZIOA

Hilabetea amaitzen doan heinean, Maiatza Saltsan kultur egitaraua ere bere azken txanpan sartzen ari da. Bertsolaritzak eta kulturartekotasunak hartuko du gaurko eta biharko lekua.

Herriko bertsolari gaztetxoak izango dira gaurko protagonistak. Pedro Mari Otaño eskolan eta San Millan eskolan bertsolaritza ikasten ari direnak bertso sortak abestuko dituzte Atxulondon.

Biharkoan Joxe Arregi plaza jaima handi batek hartuko du. Ekitaldi ugari antolatu dituzte egun guztirako. Goiz partea batez ere haurrei zuzendutakoa

EGITARAUA ▶

GAUR
18:00. Haur bertsolarien emanaldia, Atxulondon.

BIHAR
Jaimagunea egun guztian zehar Joxe Arregi plazan.
11:30. Zingaroen Ibilbidea (Sebastopoleko titiriteroak)
12:30. Munduari oparia: San Millan Ikastetxeko haurrak Nikaraguako herrialdearekin

izango da. Bereziki interesgarria izango da San Millan eskolako haurrek Nikaraguarekin duten lankidetzak proiektua ezagutaraztea. Arratsalde eta

duten lankidetzak proiektua aurkeztuko dute.

13:00. Ludoetnia, lurralde ezberdinetako jolasak.

17:00. Dantza afrikarrak eta hennazko tatuaien tailerrak.
18:30. *Pan y rosas* filma eta te ordua.

22:00. Gau Mestizoa: kapoeira erakustaldia; Canon flamenko fusio taldea eta Aritz Sound Sistem.

gau parte, gazte eta helduentzako izango da. Dantza afrikarrak, film bat ikusteko aukera eta Gau Mestizoa izango dira, besteak beste

ANOETA ▶

Euskal Festa Bodegon Bentaldearen ondoan

ERREDAKZIOA

Anoetako Bodegon Bentaldearen ondoan Euskal Festa antolatu dute bihar. Festa hasteko 2.000 kiloko harriarekin apustua egingo dute: Jokin Garmendiaren idi parearen aurka astoa eta 10 gizon ariko dira lehian. Hori 12:00etan egingo da. Ondoren, 13:00ak aldera, aizkora erakustaldia. Bertan ariko dira Jokin Garmendia, Joxe Mari Mendizabal, Arrospide, Arria II.a, Larretxea, Aierbe eta Olasagasti. Ondoren sokatira eta harri-jasotzaileak ere izango dira.

Festa bukatzeko bazkaria egingo da Bentaldea bodegoian. Bertan izango dira Sebastian Lizaso bertsolaria eta Xapre eta Zarra soinujo-leak. Txartelak 25 euro balio ditu.

ADUNA ▶

Antzerki lehiaketaren bigarren finalerdia

ERREDAKZIOA

Poltsikoko antzerki lehiaketaren bigarren finalerdia egingo dute gaur Asvinenean. 22:30ean hasiko da ekitaldia. Ondorengo taldeek hartuko dute parte saio horretan: Casual, *Ya le llamaremos* lanarekin; Hernaniko AKT, *Telefono de reclamaciones* lanarekin; Teatro Local de Renteria, *Circo Pulga* lanarekin eta Mi Cabeza Que Habla *The Spanish Tour Of Jennifer Huracan* lanarekin.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldekohitza.info
Tel.: 943 65 56 95

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Albiztur Amona honekin kontuz emanaldia eskolako eskutik. 19:00etan.

Ibarra. Zetaren bidetik bidaiari gaiaren inguruan ariko da Jon Lazkano Banoako kidea Kultur Etxean 19:00etan.

Tolosa. Bide ertzean eta Desordutan musika talde tolosarren kontzertua izango da Bonberenean 22:30ean.

Tolosa. Arrabal aldearen tango ikuskizuna Leidor aretoan 20:30ean.

Zizurkil. Haur bertsolarien saioa Atxulondo kultur etxean 18:00etan.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Nestor Basterretxearen eskulturak eta Iñaki Epelderen pinturak ikusgai Aranburun, TEEren 40. urtemugako ekitaldien barruan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Irurtzun. Mutilloa, A. San Martin, 5. 112.
 Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3.
 943 670915.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Mahaiaren inguruan

BEDAIO ▶ Harri Jaia ospatu zuten atzo bedaiotarrek, orain urte asko erori zen kazkabarrak eragindako kalteak berriz gerta ez daitezen eskatzeko



50 lagun inguru bildu ziren eliz atariko hamaiketakoan. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Bedaiotarrak mahaiaren inguruan bildu ziren atzo. Harri Jaia ospatzen zuten. Orain urte asko izugarriko kazkabarra bota zuen eta kalte ugari sortu zituen uztan bai eta baserrietako teila-tuetan ere. Hori berriro ez gertatzeko biltzen hasi ziren herri-tarrak otoitz eginez eta gero Harri Jaia bihurtu da ohitura hori.

Lehenengo mahaia, beraz, elizaren aldea izan zen. Horren inguruan elkartu ziren bedaiotarrak meza entzuteko. Ondoren, hamaiketako egin zuten elizaren atarian, eguzkipean. Trikitilarien doinuak izan zituzten lagun bertan elkartutako 50 bat lagunek, batez ere adinekoek. Hurrengo mahaia ere janariarekin zuen zerikusia, bazkaria baitzegoen Artubi elkartearen. Eguna amaitzeko, bazkarian egon ez zirenek beste mahai bat zuten prest, Artubin egin zen afarirako. Harri jaia ospatzeko, gainera, kazkabarra bota zuen.

2007KO KOBRAKETA KANPAINA ABIAN
 Egunean 19 zentimoren truke egin zaitez harpidedun!

eta gainera...

CJ BT
 JULIAN B TOLOSA

urteko kuota ordaintzeko kontu korronteko zenbakia ematen duzen arteen Tolosako Casa Julian jatetxean afaria zozketatuko dugu.

...eta banaketa txukuna izan dadin giltza ematen duzen arteen Ortzadar lantzeria-dendan 120€-ko erosketa txartela.

Entrega epea: Ekainak 10
Zozketa eguna: Ekainak 18

BEZEROARENTZAKO ARRETA ZENBAKIA: 902 820 201

villabona optika

Zatoz Villabonako optika berrira!

Ireki berria dela eta **%10eko deskontua** produktu guztietan maiatzean zehar

Kale Berria 23A • 20150 Villabona • Tel.: 943 11 18 40

egin behar dugu

Mª Angeles Lazkano
 Zuzurkilgo Alkatetzarako hautagaia

Bakartxo Telleria
 Villabonako Alkatetzarako hautagaia

Fidel Azpiroz
 Anoetako Alkatetzarako hautagaia

Txelo Romero
 Ibarra Alkatetzarako hautagaia

Patxi Ulanga
 Ikaztegiako Alkatetzarako hautagaia

Pili Zubiarrain
 Alitzoko Alkatetzarako hautagaia

Jokin Bildarratz
 Tolosako Alkatetzarako hautagaia